

JOSÉ ANTONIO SISTIAGA: ZINEMA ETA PINTURAREN BAT EGITEA



...Ere erera baleibu izik subua aruaren...

Rebeka González Fernández
Artearen Historia
2017-2018
Tutorea: Iñigo Sarriugarte Gómez
Artearen eta Musikaren Historiako Saila

LABURPENA

Lan honen bitartez José Antonio Sistiaga pintore eta zineastaren ...*Ere erera baleibu izik subua aruaren...* pelikula analizatuko dugu, bere ibilbidea eta bere obran eragin duten hainbat faktore kontuan izanik.

Lehenik eta behin, artista euskal informalismoaren testuinguru batean kokatuko dugu. Tradizio luze baten apurketa eta Euskal Herriko artearen eraberritzea suposatuz, informalismo horretan, artista bakoitzak bere harri-koskorra ekarri zuen, eta Sistiagak bai bere pintorekin, bai bere filmekin oso paper garrantzitsua izan zuen. Testuinguru hori, eta berak Parisen ikasitakoa kontuan izanik, argi geratuko da kolorea, mugimendua edo bibrazioa eta keinu bidezko adierazpenak bere obretan protagonistak izango direla.

Frankismo garaian gaude, eta Euskal Herrian diktadurak eginiko aldaketen inkonformismoak zineman eta orokorrean arteetan eragingo du, argi geratuz gizakiak errealitatekin ihes egin nahiko duela eta zinema horretarako erreminta bat izango da. Zeluloide gaineko obra honetan esperimentazioarekin topo egiteaz aparte, Duchampek hasitako denboraren eta mugimenduarenganako kezka oso presente dago.

Hala ere, artelan abstraktu honen bidez, Sistiagak ez du gizarteari mezu zehatz bat helarazi nahiko, bere helburua publikoak nahi duena pentsaraztea izango da, norbera bere bizitzaren eta pentsamenduen jabe izan beharko delarik.

Betidanik, diziplina guztienganako eta orokorrean esparru ezberdinenganako interesak bere izaeran eta bere pintatzeko eran eragin dute, adibide bikaina zientzien mundua izanik. Horren arrastoak ...*Ere erera...* pelikulan ikusteaz aparte, kolorearen bizitasuna nagusituko da, Sistiagak kolorearenganako errespetua baitauka.

Segundoko hogeita lau irudiko abiadura duen pelikula honetan, kontzienteki edo inkontzienteki, artistak ikusleen pertzepzioekin jolastuko du; ikusleok pelikularen erritmoa eramango dugu, kliska egiten dugun bakoitzean irudiak edo zeluloideak galtzen baititugu.

Sistiagak film honekin hirurogeita hamabost minutuz begiratu beharreko margolan bat lortuko du, nahiz eta irudi figuratiboen presentziarik ez egon, gure pentsamenduak aztoratuko ditu.

Artistak pelikula honekin lortu duen guztia oso kuriozoso da, berak margotzerako orduan ez baitzuen aurretiko analisirik egin. Zinema eta pinturaren elkarlotze honekin, arrazionalismotik urrun dagoen gogoetara bideratuko gaitu, ikusleonek pertzepzioekin jokatuz. Laburbilduz, esan dezakegu margolaritzan mantso doana zineman azkar doanarekin batu duela.

AURKIBIDEA

1. SARRERA OROKORRA	4-5 orr.
2. INFORMALISMOA EUSKAL ARTEAN	6-7 orr.
3. SISTIAGAREN ZINEMAREN TESTUINGURUA	8-10 orr.
4. ARTISTAREN BIOGRAFIA	11-13 orr.
5. SISTIAGA, ... <i>ERE ERERA BALEIBU IZIK SUBUA ARUAREN...</i>	14-24 orr.
5.1.PINTURATIK ZINEMARA	14-16 orr.
5.2.ZINEMAREKIN LEHENENGO KONTAKTUA	16-24 orr.
5.2.1. <i>De la luna a Euskadi edo ...Ere erera baleibu izik subua aruaren...</i>	
6. ONDORIOAK	25 orr.
7. BIBLIOGRAFIA OROKORRA	26-28 orr.
8. ERANSKINA	29-32 orr.

1. SARRERA OROKORRA

Lehenik eta behin eskerrak ematen hasiko naiz, lan hau burutzerako orduan laguntza asko izan dudalako, eta pertsona ugarik asko lagundu nautenez, nire lanaren hasiera beraiei eskaini nahi diet. Donostiako filmotekan orduak eta orduak eman ditut Jone eta Maria filmotekako langileekin, eta bost hilabete hauetan oso ondo tratatu naute; Sistiagari buruzko artikulu asko, pelikularen kartel ofiziala eta pelikularen zatitxo bat eman zidaten.

Zer esan artistaren inguruan? Izugarritzko zortea izan dut, Sistiagak besoak zabalik jaso nauelako. Pelikularen egile-eskubideak eskatu behar nizkionez, berarekin telefonoz hitz egin nuen, eta oso ondo tratatu ninduen, esanez bere tailerrera (Donostiara) hurbiltzea. Baiezkoa eman zidanez, filmotekara deitu zuen, eta lankideei pelikula ematea esan zien. Hala ere, nahiz eta artista beraren baimena izan, burokrazia arazoak direla eta, pelikula osoaren truke 250€ eskaini zizkidaten, adieraziz minutu bakoitzarengatik 3€ gehi BEZ-a ordaindu behar zirela. Azkenean, 24€ ordaindu nituen, eta horrela 75 minututik 6 lortu ditut.

Maiatzaren 11an, Sistiagarekin geratu nintzen, eta bere tailerrera joan ginen. Tutorearekin hainbat galdera prestatu nituen, gehien bat lanaren inguruan sortu zitzaizkidan dudekin. Lehenengo galdera egiterakoan, barrezka hasi zen, eta bere bizitzaren istorio osoa kontatzea erabaki zuen, gauzak lehenengo momentutik azaldu behar direlako. Bere obraren eraginaz hitz egiten zuenean, soilik lau izen agertu ziren elkarrizketan: Vaslav Nijinsky, Kandinsky, McLaren eta Manuel Duque. Horrek nire lanaren planteamendua, gutxienez mugimendu edo korronteen zatia, birmoldatzera eramanez zidan. Betidanik irakatsi digute artistak mugimendu edo korronte baten barnean sartuta egon behar direla, baina lan hau egiten gauzak hain sinpleak ez direla ohartu naiz. Sistiagaren pintura eta zinemaren hainbat ezaugarri mugimendu ezberdinekin elkarlotu ditzakegula argi dago, baina ezin dugu esan bere margotzeko era askotan espresionista abstraktua dela, ez dakienean ezta zer den *dripping* teknika.

Orain, eskerrak albo batera utziz, amaierako lanaren metodologian sakonduko dut. Tutorearekin gaia adostu nuenez, artistaren inguruan dokumentatzen hasi nintzen eta oso interesgarria iruditu zitzaidanez, aurrera jarraitzea erabaki nuen. Bere zinemaren inguruan dokumentatzen hasi nintzenean, berak egiten zuena ikaragarritzko gauza iruditu zitzaidan, eta pintura eta zinemaren arteko elkarketa bat egitea deliberatu nuen.

Horrela, lanaren marko teorikoa edo eskema antzekoa egin nuen, eta gaur arte aldatu ditudan gauza bakarrak informalismoa eta zinemaren sarrerak izan dira, lehen azaldu dudan zergatiarengatik. Hasiera batean, espresionismo abstraktua korronte artistikoaren sarrera egin behar nuen, baina Sistiagari buruzko informazioa irakurtzen nuen heinean, ez nuen argi estilo horretan murgildua zegoenik. Izan ere, informalismoa, abstrakzioa, espresionismo abstraktua, abstrakzio liriko frantziarra eta

esperimentazioaren hitzak irakurtzen nituen. Horren ondorioz, sarrera horrek ez zuela inolako zentzurik pentsatu nuen, eta informalista zela ideia nagusia zenez, euskal informalismoaren sarreratxo bat egitea erabaki nuen, beti ere, Sistiagarekin elkarlotuz.

Horren haritik, esan beharra dago zinemaren sarrerarekin gauza bera gertatu zitzaidala. Gizarte honetan beti gauzak katalogatzen saiatu izan gara, eta nik Sistiagaren zinema ezin dut katalogatu, *unicum*- a iruditzen zaidalako. Argi dago bai bere zinemak, bai bere koadroak eragin zuzenak dituztela, eta horrela transmititzen saiatu naiz, baina mugimendu guztiei garrantzi handirik eman gabe, baizik eta artistak egiten duen lanari.

Dudarik gabe, artistaren biografia da benetan oso garrantzitsua iruditu zaidana, hori ezagutu gabe, bere ibilbide artistikoa ulertu ezin genukeelako. Bere aitaren istorioa irakurritako liburu guztietan agertzen zen, eta *El Trazo Vibrante* liburuan (artista eta autoreen arteko elkarrikeria bat dena) zehaztasun osoz mesedez idaztea eskatu zuen Sistiagak. Orduan, hori kontatzea erabaki nuen, eta hein batean, politikaren aurkako sentipen horren seinale ...*Ere erera*... pelikularen lehenengo bertsioan ikus dezakegu. Azken finean, Sistiagarentzako garrantzitsua denari nik garrantzia eman diot ere, bera artista baita eta ni berari buruz idazten ari naizena.

Erabilitako bibliografia eta artikulua guztietan, Parisen inguruan hitz egiteaz aparte, ...*Ere erera*... pelikulaz mintzatzen ziren ere. Horri buruz informazio ugari zegoela ikusirik, pelikula hori egitea erabaki nuen. Gainera, interesgarria iruditu zitzaidan bere lehenengo filma zela jakinda, artikuluetan izugarritzko kritika onak izatea. Bere pinturatik zinema egitera nola iritsi zen asko interesatzen zitzaidanez, gauzak irakurtzen joan nintzen, eta izandako prozesua edo zubia lanaren gorputzaren hasieran jartzea erabaki nuen. Pelikula egin aurretik bigarren sustraia bere pelikula figuratiboa izan zenez, horri buruz hitz egitea erabaki nuen ere.

Pelikula ikustera filmotekara joan nintzenean, lehenago irakurritako guztia askoz hobeto ulertu nuen, eta horren analisisa egitea oso zaila izango zela ohartu nintzen. Ideiak berritoki antolatu behar izan nituen, eta pelikula ikustean manipulatu ahal nuen, detaile askorekin geratu nintzen. Hala ere, argi geratu zait pelikula honi buruzko azterketa egitea oso zaila dela, ezin baita zeluloide bakoitzari buruz hitz egin. Gainera, pelikula abstraktua izanda, oso zaila da horren deskribapena egitea, edo kolore horiekin zer transmititu nahi duen jakitea, artistak berak ez baitaki.

2. INFORMALISMOA EUSKAL ARTEAN

Euskal artista informalistak 1920 eta 1940 urteen artean jaio ziren, eta geroago euskal eskolen kide izango dira¹: Sistiaga, Mieg, Balerdi... horien artean aurkituko dira.

1960ko hamarkadan, gizartearenganako kezka eta lehenengo abangoardiako arrastoengatik, artearenganako begirada eta sentipena aldatuko da. Hau da, informalistek Euskal Herriko artearen eraberritzea nahi izango dute. Guasch-ek informalismoak euskal artean, artearen alderdi plastikoetara itzultzea suposatu zuela zion. Hasieran, zentzu sinboliko eta sozial batetik aldendua eta gaien aldetik, bereziki, anekdotikoa izan zen. Honek funtsezko bi kontuetara darama: lehenik eta behin, tradizio luze baten apurketa eman zen, zeinean obrak bere irudikapenarengatik baloratzen ziren eta ez bere baitan artelana izateagatik. Hau da, gaia eta narrazioaren ikuspuntutik baloratzen ziren. Bigarrenik, azkeneko hamarkadako bigarren erdialdera arte emango ez den jarrera bat. Alegia, euskal testuinguru politiko eta sozialetik at dagoen kezka plastiko baten agerpena. Honek, bestalde, ez du esan nahi informalismoaren ukapenak eta, muturrera joanda, abstrakzioaren ez zirela hizkuntza plastiko ezezagunak balizko euskal estetika edo arte batentzat. Guztiz kontrakoa, askotan errepikatu da abstrakzioa euskal norbanakoaren egitura eta izaera bereziarekin hertsikien bat egiten duen ezaugarrietako bat dela².

Laburbilduz, esan dezakegu informalismoaren etorrerak aldaketak suposatu zituela; tradizioaren apurketa gertatu zen, eta oraingoan ez da baloratuko obrak duen mezua, baizik eta obra bera³. Gerra eta frankismoaren testuinguru honetan, euskal artistek beraien kultura (nazionalismoari lotuta) berreskuratu nahi izango dute. Beraz, hein batean euskal artista informalistak gizartearekin konprometituak egongo dira; artea instrumentu bat izango da, zeinak gizartean emozioak eta erreakzioak probokatuko dituen. Sistiagak beti esango du artetik politikara joan zaitezkeela, baina alderantziz ez⁴.

Euskal informalismoen ezaugarriak Amerikan sortutako espresionismo abstraktuarekin bat egingo dute. Hala ere, modu irrazional batean, tatxismoa eta keinuen formalizazioa emango da. Hau da, abstrakzio amerikarrak *Action Painting*-ean, edo guztizko adierazkortasunean datza. Bitartean, abstrakzio liriko frantziarrak balio adierazkorrak gailenduko ditu, Sistiagak egiten duen bezala⁵.

¹ LINAZA, G.: *Pensamiento romántico naturalista y experiencia procesual en el expresionismo abstracto. Influencia en el informalismo vasco*. Bilbo, UPV/EHU, Arte Ederren Fakultatea, 2008. 51orr.

² GUASCH, A. M^a.: *Arte e ideología en el País Vasco: 1940-1980*. Madril, Akal/Arte y Estética, 1985. 238-239 orr.

³ *Ibid.*, 239 orr.

⁴ MARÍN, M.: "Los políticos creen saber más que los artistas y deciden sin preguntar", *El País*, 4, 2006. 4 orr.

⁵ SISTIAGA, J. A. & AMESTOY, S.: *Sistiaga: [Pintura, dibujos eróticos, films: 1958-1996]*. Madril, May Moré Arte Galería, 1999. 10-11 orr.

Horren haritik, aipatu beharra dago marra adierazgarriak eta analitikoak nagusituko direla, eta esanahia guztiz espresionista izango dela. Formak guztiz berriak izango dira, eta material ez ohikoak erabiliko dituzte⁶; Sistiagak adibidez, aurrerago ikusiko dugun bezala, area erabiliko du noizbehinka.

Artista informalistek plastikan jarriko dute arreta, eta ez bakarrik egoera politiko, ekonomiko edo sozial batean, artearen historian zehar asko gertatu den bezala.

Lehen aipatu bezala, informalismo horren barnean artista informalista bakoitzak bere estilo propioa hartuko du, beti kontuan izanik beraien lengoia abstraktua eta simbolista izango dela⁷. Guasch adituak argi aurkeztuko digu Sistiagaren margotzeko era:

«Los rojos, verdes, azules y amarillos son la base de su paleta, en tanto que en ocasiones el gesto deja paso a una línea casi casual, que no es más que un <frotage> que busca la dialéctica entre el espacio (vacío) superficial, con el tiempo (línea) proyectado por el propio artista »⁸.

Euskal artista informalistei (Sistiagari barne), Zen pentsamenduak beraien estilo artistikoan eragin die. Sistiagak azalduko duenez, sortze-prozesuan oso presente egon da pentsamendu hori⁹. Geroago errepikatuko dugun bezala, Sistiaga ez da hain errez haserretzen, eta bere obretan amorrua ez da protagonista izango¹⁰.

Laburbilduz, eta berriro azpimarratuz, Sistiagaren obretan ezaugarri nagusiak zeintzuk diren argi geratzen da. Testuinguru informalista honetan, eta berak Parisen ikasitakoa kontuan izanik, kolorea, mugimendua edo bibrazioa eta keinu bidezko adierazpenak protagonistak izango dira. Ezaugarri guzti hauek, ...*Ere erera...* pelikulan, argi ikusiko ditugu.

⁶ GUASCH, A. M^a., op.cit., 307 orr.

⁷ LINAZA, G., op.cit., 60 orr.

⁸ GUASCH, A. M^a., op.cit., 249 orr.

⁹ LINAZA, G., op.cit., 7 orr.

¹⁰ VICARIO, B. & MATEOS, J. M^a.: *Sistiaga, el trazo vibrante*. Madril, Animadrid (Pozuelo de Alarcón udaletxea), 2007. 40 orr.

3. SISTIAGAREN ZINEMAREN TESTUINGURUA

Atal honi hasiera eman aurretik, lehenago gai baten inguruan mintzatu beharra dago. Pertsonalki, Sistiagaren zinema estilo edo mugimendu ugarirekin elkarlotuko nuke, eta aldi berean, ez nuke ezta mugimendu bakarrarekin elkarlotuko. Sistiagak zinemarekin esperimentatu zuen, eta bai bere obrak, bai bere pelikulak, estilo bakar baten barnean sartzea oso zaila izango litzateke. Hala ere, testuinguratzea derrigorrezkoa denez, zinemaren barruan espresionismo abstraktua eta zinema esperimentalak aukeratu ditut, ezaugarri komun batzuk nagusitzen direlako.

Espresionismo abstraktua zineman ulertu ahal izateko, mugimendu edo estilo horren historiara, jatorrira eta aitzindarietara jo beharra dago. 1940ko hamarkadan Estatu Batuetan jatorria duen lehenengo mugimendu artistikoa izango da, eta pintura erregionalista eta nazionalista kontserbadorearen aurka agertuko da, adimen irekiago batekin. Korrante hau Europan garatuko da, Espainian eta Euskal Herrian eragina izanez, lehenago informalismoaren atalean ikusi dugun bezala¹¹.

Ezaugarri formalei dagokienez, automatismo psikikoa eta indar inkontzientek erabiliko dituzte, logika eta arrazoiaren interbentzioa kanpoan utziz. Lehen aipatu bezala, ezaugarri hau Sistiagaren pinturan ez da guztiz beteko. Horren ondorioz, hein batean abstrakzio liriko frantziarrarekin elkarlotuko zaio¹².

Iparramerikako estiloan, espresioz beteriko bat-batekotasun hori gailenduko da, gehienetan amorruez beterikoak izango direnak. Abstrakzio lirikoan, ordea, amorruez beteriko bat-batekotasun hori ez da hain garrantzitsua izango¹³. Adibidez, Estatu Batuetako estilotik, *Action Painting* erabiliko duenez, hainbat ezaugarri nagusituko dira: inprobisazio prozesua emaitzaren gaintetik egongo da, zorizko pintura izango da eta *dripping* teknika erabiliko du.

Behin mugimenduaren nagusitasunak ezaguturik, zinemaren munduan barneratu beharra dago. XX. mendearen lehenengo erdialdean zinema garatuz joango denez, espresio era berriak sortuko dira. Futurismoan zinema modernitatearen seinale izango da, non zinemaren bitartez mugimendua sortuko duten. Hala ere, mugimendua eta denboraren kezka hori jada Duchampek hasi zen, eragina izanez hurrengo hamarkadetan. Bi faktore horietaz aparte, kolorearen bizitasuna eta nagusitasuna emango da, Sistiagaren pinturan ikus dezakegun bezala.

¹¹ FERNÁNDEZ, J.: *Euskal Zinema: Zinemagileen hiru belaunaldi*. Donostia, Euskadiko Filmategia Fundazioa, 2015. 47 orr.

¹² SISTIAGA, J. A. & AMESTOY, S., op.cit., 19 orr.

¹³ Ibid., 19-20 orr.

Beraz, espresio forma tradizionalen aurka, abangoardia zinematografikoaren garaia hasiko da. Mario Verdonek adituak honakoa dio abangoardiei buruz:

*«La innovación y el cambio continuo; el activismo —entusiástico, creativo, apasionado, aventurado, experimentación; nihilismo irónico, negación de lo antiguo, la experiencia límite, el juego, nuevo uso de los materiales, invención de nuevos lenguajes, la recurrencia a las nuevas tecnologías »*¹⁴.

Beste alde batetik, Monika Keska adituak zinema eta mugimendu artistiko garaikideen erlazioak hainbat kategorietan sakabanatu ditu; hala ere, gu “*Influencia de corrientes artísticas en la imagen cinematográfica*”-ren multzoan geldituko gara.

II. Mundu Gerra eta gero, Stan Brakhage zineasta abangoardia zinematografiko horren barnean, estetika abstraktuaren aitzindarietako bat izango da 60ko hamarkadan. Zeluloide gainean zinema guztiz abstraktua egingo du, gure artistarekin antzekotasunak izanez¹⁵. Bestalde, zaharragoa den Norman McLaren zineasta, aurrean daukagun lan honetarako zineastarik garrantzitsuen izango da, Sistiagaren zineman eragin handiena duena izan baita. Honek zeluloidean zuzenean margoturiko animaziozko pelikulak egingo ditu, figuratiboak izango dira, eta mugimendu biziak izango ditu¹⁶. Sistiagak, McLarenen pelikulak oinarri izanik, bereak sortuko ditu, bere pinturrekin bat datorren estiloa jarraituz, alegia¹⁷.

Horren haritik, euskal zinemaren testuingurura iristen gara. Espainian eta Euskal Herrian, 60ko eta 70eko hamarkadan frankismoaren garaian gaude, eta aldaketa ekonomikoak, politikoak, sozialak eta kulturalak pairatu ziren. Euskal Herrian aldaketa horien inkonformismoak zineman eta orokorrean arteetan eragina izango du. Aurretik ikusi dugun bezala, zinema abangoardista berriak sufritzen hasi zen, eta zineasta edo artista ezberdinak berriak pixkanaka ekartzen hasi ziren, hemengo identitate kultural ezberdin bat bultzatuz¹⁸.

Hori dela eta, artista batzuk (Sistiaga kasu delarik) esperimendatzen hasiko dira. Sistiagak adibidez guztizko abstrakzioa joko du, eta bere pelikulen bidez publikoarekin komunikatuko da. 60ko hamarkada horretan, Sistiagaren laguna den Oteizak, bere *Quousque tandem...!* liburua argitaratuko du, eta bertan adibidez, gizakia eta zinemaren arteko erlazioari buruz hitz egingo du. Oteizak, argi utziko du gizakiak errealitatetik ihes egin nahi duela, eta zinema erabiliko duen erreminta izango da; beraz, artearen bitartez garaiko artistak eta zineastak gizartea laguntzen saiatuko dira¹⁹.

¹⁴ KESKA, M.: “Las interacciones entre cine y corrientes artísticas contemporáneas”, *Artigrama*, 20, 2005, 547-562 orr. <http://www.unizar.es/artigrama/pdf/20/3varia/19.pdf> (2018.05.09an kontsultatua).

¹⁵ *Ibid.*, 551 orr.

¹⁶ MARTÍNEZ-SALANOVA, E.: “Norman McLaren. La experimentación en el cine de animación”. *Cine y educación, Portal de la educomunicación*. http://educomunicacion.es/cineyeducacion/figuras_mclaren.htm (2018.05.09an kontsultatua).

¹⁷ “Entrevista a José Antonio Sistiaga”, *Vimeo*, 2010. <https://vimeo.com/35153766> (2018.04.14an kontsultatua).

¹⁸ FERNÁNDEZ, J., *op.cit.*, 47 orr.

¹⁹ *Ibid.*, 21-33 orr.

Lehen aipatu bezala eta aurretik esandakoarekin erlazionatuz, Sistiaga bere obren bidez gizartearekin komunikatuko da, eta hori izango da bere laguntza horren adierazle; berak ez du mezu zehatz bat helarazi nahi, baizik eta publikoak nahi duena pentsaraztea. Horretarako, berak zinemaren esperimentazioa erabiliko du, aurretik esandako ezaugarriak edo baliabideak hein batean erabiliz.

4. ARTISTAREN BIOGRAFIA

Sistiaga gipuzkoarra 1932ko maiatzaren 4an jaio zen Donostian, Rafael Sistiaga eta Luisa Mossoren seme bakarra izanik. Artistak dioenez, bere amak eta bi izebek (beste bi amak) amorez eta libretasunez beteriko hezkuntza helarazi zioten²⁰.

Autore ezberdinek Sistagari buruzko biografia idatziko duten bakoitzean, artistak gauza bat galdatzen du; bere aitaren istorioa zehaztasun osoz idaztea. Horren ondorioz, artistaren nahi bat dela ikusita, nire lanean gotea erabaki dut.



[1. Irudia]²¹: Berezko argazkia, Donostian maiatzaren 11an.

Rafael Sistiaga Eusko Jaurlaritzan lan egiten zuen gizon bat zen. Gerra Zibilaren garaian bere auzokideak ziren apaiz eta armadako militar Antonio Diezek eta bere anaiak salatu zuten. Bi faxista horiengatik kartzelan egongo da 1941era arte, haiek salatutako beste batzuekin batera. 1961ean bi anaiak anbulantzia batean sartu zituzten, apaiza kartzelara edo komentu batera eramanez, eta bere anaia, ordea, eroetxe batera. Beraz, Sistiagak argi uzten du txikitatik eliza eta militar munduaren kontra egon dela²²: «*Fui vacunado muy joven contra el mundillo eclesiástico y militar*»²³.

Nahiz eta sei urte izan, artistak bere bizitzaren lehenengo oroitzapena oso presente dauka. Izan ere, momentu horretan pintorea izango zela erabaki zuen. Linazasoro doktorearen etxean orduak ematen zituen, familiaren lagun onak zirelako. Bertan, Velazquezen *Bredako Errendizioa* margolanaren kopia bat zegoen, eta margolan horrek Sistiaga hunkitu zuen; liluragarria iruditzen zitzaion. Egun batean, Linazasoro aitonaaren akuarelazko kutxa oparitu zioten²⁴. Familia horrek bere etxean

²⁰ BOUHOURS, J. M.: *Sistiaga keinu bidezko pinturatik mugimenduaren artera*. Alzuza, Jorge Oteiza Fundazio Museoa (Nafarroako Gobernua), 2015. 162 orr.

²¹ Berezko argazkia, Donostia, 2018.

²² VICARIO, B. & MATEOS, J. M^a., op. cit., 27-28 orr.

²³ LANDABURU, A.: "Pionero del cine hecho pintura: [El artista vasco José Antonio Sistiaga ha convertido el celuloide en un lienzo para la experimentación], *El País*, 3, 2009. 3 orr.

²⁴ AGUIRRE, J.: "José Antonio Sistiaga: «La pintura no ha sido un modo de vida para mí, sino la vida misma»", *Naiz*, 2018. <https://www.naiz.eus/es/actualidad/noticia/20161005/la-pintura-no-ha-sido-un-modo-de-vida-para-mi-sino-la-vida-misma> (2018.04.14an kontsultatua).

²⁴ SALA, T.: "El arte es más que mi modo de vida: es mi vida", *Euskonews & Media*, 2005. http://www.euskonews.com/0292zkb/elkar_es.html (2018.04.14an kontsultatua).

zuen margolan hori zela eta bere lehenengo emozio estetikoa jasan zuen, sentimendu horri esker pintorea bihurtuz²⁵.

Artista ez zen gainerako umeak bezala. Orduak irakurtzen, isilean, margotzen eta margolanak kopiatzen ematen zituen; eskola utzi zuenean, Donostiako San Telmo Museoan orduak eta orduak ematen zituen, bertan zeuden margolanak kopiatzen²⁶. Sistiagak azpimarratuko du artistak kopiatzen formatzen direla, baieztatuz pintoreentzako hezkuntza formularik eraginkorra dela. Kopien emaitza finala ikusita, artista autodidakta honek ikasi duen edo ez ohartuko da²⁷. Berarentzat museora joatea kopiak egitera erabakigarria izan zen, hor guztiz konturatu baitzen pintorea izan nahi zuela²⁸.

1955ean Parisera joango da, zehazki, bere amaren lagun baten etxera. Eskuekin margotzen zuen pintorea zen emakume horri esker Arte Ederretako Eskolan sartuko da²⁹. Hala ere, hilabete eta erdi iraun zuen bertan, artista oso independentea baitzen, eta gai akademikoei uko egingo die. Ikasketa alternatiboak bilatuko ditu eta antzerki eta pelikulak esaterako bere kabuz ikusiko ditu³⁰.

Nolanahi ere, eskola horretara sartzeak aspektu positibo bat izan zuen; bertan Manuel Duque ezagutu zuen, Sistiagak bere pinturaren norakoa aurkitzeko erabakigarria izan den pertsona; *«fue decisivo para mí, para abandonar la figuración y el realismo y avanzar hacia el idealismo y la abstracción»*³¹. Beraz, esan dezakegu momentu horretan Parisen (1955-1961), bere artearen bilaketa egiten ari zela. Egun batean, Sistiaga eta Manuel Duque sei erakusketa ikustera joan ziren, eta Sistiagak dio sei horietatik soilik hiru benetakoak iruditu zitzaizkiola. Horietako erakusketa batean, biluziak protagonistak ziren, baina Sistiagak ez zuen biluzi horien presentziarik ikusten. Artista horren inguruan hausnartuko du, eta gau batean filmoteka frantsesera joango da, zinematik ateratzen diren pertsonen itzalak ezkutuan pintatzeko³². Momentu horretatik aurrera, artelan figuratiboak alde batera utziko ditu, eta abstrakziorako bidea hartuko du, zehazki, 1958an³³.

Behin Paris utzita eta Euskal Herrira bueltatzean, euskal artean paper oso garrantzitsua jokatu du. Calvo Serraller adituak Sistiagari buruz garbi aurkeztuko du bere iritzia: *«había ocupado un papel de protagonista en la renovación de pintura vasca de las últimas décadas»*³⁴. Izan ere, 60ko hamarkadan eskola euskaldunaren mugimendua sortuko da, Sistiagaren hitzak oinarritzat hartuz, bera ideia horren fundatzailea izango da.

²⁶ BOUHOURS, J. M.: *José Antonio Sistiaga: Lorategi irudikatu bateko islak*. Donostia, Kulturunea, 2011. 155 orr.

²⁷ "Entrevista a José Antonio Sistiaga", op.cit.

²⁸ VICARIO, B. & MATEOS, J. M^a., op.cit., 30-31 orr.

²⁹ SISTIAGA, J. A. *Artistari egindako elkarrizketa*. Eranskina, 1. galdera.

³⁰ VICARIO, B. & MATEOS, J. M^a., op.cit., 47 orr.

³¹ Ibid., 42 orr.

³² SISTIAGA, J.A., op.cit., 1. galdera.


³³ Ibid.

³⁴ SISTIAGA, J. A. & AMESTOY, S., op.cit., 12-15 orr.

Frankismoaren denboraldi horretan artistak artelan abstraktuen erakusketa alternatibo bat sortzearen ideia izan zuen (1966an, Barandiaran galerian): GAUR, HEMEN, ORAIN, BAITA eta DANOK. Bertan artista euskaldun ez figuratiboak libretasun osoz parte hartuko zuten. Talde horren manifestuak gehien bat garaiko artearen immobilismoa kritikatu du. Halaber, estatuaren erakusketa ofizialei kritika egingo die, Madrileko eskolako artistak ez direla argudiatuz, eta ezin direla epaituak izan hango epaimahaikideengatik³⁵. Azpimarratu beharra dago GAUR taldea ez ezik, gainerakoak politikak kontrolatzen zituela (Sistiagak betidanik kritikatu duen gaia). Hala ere, taldeak gutxi iraun zuen (hiru urte), berehala politikak esku hartu zuelako, eta artistak maneiatzen saiatu zirelako³⁶. Azkenik, esan beharra dago talde hauen inguruan mito edo espekulazio ugari daudela, eta gu Sistiagaren hitzetan oinarritzen ari garela.

Hortik aurrera, Sistiagak filma eta margolanak egiten jarraituko du, gaur egun arte. Bere margolanen eta pelikulen artean adibidez, *Llamarada (Homenaje a mi padre, víctima de la intolerancia y el fanatismo* (1972), *Cosmos-Océano I* (2001), *...Ere erera...* (geroago sakonki analizatuko duguna), eta gaur egun dituen 86 urterekin, oraindik bukatu ez duen *Han* (1992-)³⁷.

Llamarada artelana, bere aitari eskainitako obra oso garrantzitsua da berarentzat, eta bere tailerrean mantenduko du gaur egun arte. Azkenik, esan beharra dago artistak bere bizitza planeatzen ez duela, eta ez dakiela Oteizari eskainitako *Han* bukatuko duen edo ez. Bere artistaren izaera argi geratzen da, berak nahi duena eta nahi duen momentuan egiten baitu, gainerakoek esaten dutenari uko eginez³⁸.



Sistiaga, J.A.
Llamarada. Homenaje a mi padre, víctima de la intolerancia y el fanatismo, 1972.

Oihal gaineko olioia.
200 x 315 zm.

[2. Irudia]³⁹

³⁵ AUTORE EZEZAGUNA: "Sistiaga presenta hoy en Pamplona la película que pintó fotograma a fotograma", *Noticias de Gipuzkoa*, 67, 2006. 67 orr.

³⁶ AGUIRRE, J.: "Los Ocho Nombres Que Cambiaron El Arte Vasco", *Gara*, 6-8, 2016. 6-7 orr.

³⁷ BOUHOURS, J.M.: *Lorategi irudikatu bateko islak*. op. cit., 163 orr.

³⁸ SISTIAGA, J.A., op.cit., 2. galdera.

³⁹ BOUHOURS, J.M.: *Lorategi irudikatu bateko islak*. op. cit.

5. SISTIAGA, ...*ERE ERERA BALEIBU IZIK* *SUBUA ARUAREN...*

5.1.PINTURATIK ZINEMARA

Txikitatik artearen munduarekin elkarlotuta egongo da, eta bere gurasoek Sarasateren obrak jartzen zizkiotenean, bera bezalakoa izan nahi zuela erabakiko du. Biolinista izateko nahitik, pintore izatera pasako da⁴⁰. Bere obren norabidea eta zergatia ulertu ahal izateko, lehendabizi, bere haurtzarora jo beharra dago.

Bere ama liburuzaina zenez, liburu ugari ekartzen zizkion; hamar edo hamaika urterekin, Vaslav Nijinsky balet dantzari errusiarraren biografiaren liburua irakurri zuen. Artistak dio liburu horrek beste espazio edo mundu ezberdin baterako atea ireki zizkiola. Dantzariak Europako herrialde batzuen hizkuntzak ikasi nahi zituen, emanaldiak ematerako orduan jendearekin komunikatu ahal izateko. Honen harira Diaguilev, bere aholkulariak, pentsamendu horren kontrako jokaera hartuz, honakoa esan zion: «*Tu lenguaje es la danza, deja que los demás la aprendan, y esa será su comunicación contigo*»⁴¹.

Sistiaga hein batean, bai liburu horrek, bai aholkulariak esandakoak, asko markatu zuen. Izan ere, bere pinturan keinuak nabarmentzen dira, eta artista berak dio bere pintura karakterizatzen duen “gestualidad” horrek dantzarekin zer ikusia duela. Bestalde, pertsonalki, artista pinturaren bidez komunikatuko da gainerakoekin, kritikei uko eginez, bera baita bere epai okerrena eta zorrotzena⁴².

Orobat, bere arteari buruz hitz egiten dugunean, “hausnarketa” hitza ez agertzea ezinezkoa da⁴³. Txikia zenean, bere ingurunean zegoen guztiaren gogoetak egiten zituen⁴⁴.

Hasieran, haur oro bezala formatzen eta esperientziak bizitzen joan zen, gertaera hauen inguruan formatuz. Bizipen ugari izan zituenez, baliteke Sistiaga hemen konturatu izana, kalean edota museoetan gehiago ikasten dela gela batean baino.

Parisera iristean informalismoa jorratuko du, eta Manuel Duqueri esker “nubismoa” ezagutuko du. Urte horretan, Sistiagak informalismoa eta “nubismoa”-ren arteko margolanak egingo ditu, bere sustriak ahaztu gabe. Izan ere, urte horietako margolanak paisaia euskaldunak ziren⁴⁵.

⁴⁰ SISTIAGA, J. A., op. cit., 1. galdera.

⁴¹ VICARIO, B. & MATEOS, J. M^a., op.cit., 40-41 orr.

⁴² Ibid., 32 orr.

⁴³ BOUHOURS, J. M.: *Lorategi irudikatu bateko islak.*, op.cit., 9 orr.

⁴⁴ BOUHOURS, J. M.: *Sistiaga keinu bidezko pinturatik mugimenduaren artera.*, op.cit., 186 orr.

⁴⁵ BOUHOURS, J. M.: *Lorategi irudikatu bateko islak.*, op.cit., 17 orr.



Sistiaga, J.A.
Paisaje Vizcaíno,
 1956.
 Oihal gaineko oleoa.
 102,2 x 148 zm.

[3. Irudia]⁴⁷

Ezaugarri horiei kolore adierazgarriak batuko zaizkie, bere obran gehienetan biziak izango direnak; adibide bikainenaren artean *Paisaje Vizcaíno* (1956) egongo litzateke.

Denbora aurrera doan heinean, Sistiaga arazo ekonomikoekin topatuko denez, lehen aipatu bezala, 1958-1961 urteen artean murrizketak egin beharko ditu; olioalde batera utziko du, eta paper gaineko pinturak jorratuko ditu. 1958-1959an, tinta txinatarrez egindako “pintura beltzak” seriea margotuko du, zeinean aditu askok Jean Fautrieren eragin argia ikusi duten. Beste batzuek, ordea, abstrakzio liriko frantziarrarekin elkarlotu dituzte obra hauek; Henri Michaux eta Hans Hartung-en obrekin zehazki⁴⁸.



Sistiaga, J.A.
Celosía, 1965.
 Paper gaineko tinta.
 50 x 65 zm.

[4. Irudia]⁴⁹

Hirurogeiko hamarkada horretan, pintura beltzak egin eta gero, gouache seriea egingo du. Bere margolanetan kolore biziak berriro ikusiko ditugunez aparte, pinturetan akzioa edo lehen aipatutako keinu-bidezko teknika ikusiko dugu; intentsitatea eta azkartasunarekin topatuko gara. Beraz, esan dezakegu artista gero bere zeluloidetan ikusiko dugun teknika aurkezten ari dela. Bestalde, paper gaineko gouache horiei erreparaturaz, beste ezaugarri nagusi batek arreta deituko du; pixkanaka, obrak izugarritzko dimentsioak hartzen joango dira. Horri buruz galdetzerakoan, bere erantzuna honakoa izan zen: «*Mis cuadros crecieron porque encontré un sitio alto donde poder pintarlos*»⁵⁰.

⁴⁶ BOUHOURS, J. M.: *Lorategi irudikatu bateko islak*, op.cit., 17 orr.

⁴⁷ Ibid.

⁴⁸ “Exposición Sistiaga. De la pintura gestual al arte del movimiento”. *Jorge Oteiza Fundazio Museoa*, 2015. <http://www.museoteiza.org/2015/06/exposicion-sistiaga-de-la-pintura-gestual-al-arte-del-movimiento> (2018.04.14an kontsultatua).

⁴⁹ BOUHOURS, J. M.: *Lorategi irudikatu bateko islak*, op.cit.

⁵⁰ SISTIAGA, J. A., op.cit., 10. galdera.


Artista bere estilo propioa hartzen joango da, eta nahi gabe edo apropos, *Celosía* artelanean ikus dezakegun bezala, zinemara hurreratzen joango da. Proiektzio zinematografikoa azaltzen ari da Sistiaga⁵¹?

5.2.ZINEMAREKIN LEHENENGO KONTAKTUA

5.2.1. *De la luna a Euskadi* edo ...*Ere erera baleibu izik subua aruaren...*

1958an Parisen dagoela, Duquerekin batera, Montparnaseko zineman emititzen zuten pelikula bat ikustera joango da⁵². Pelikula hori jarri aurretik, McLaren-en film bat ipini zuten. Sistiagari asko interesatuko zaio pelikula, eta berak berea egingo duela erabakiko du. Hala ere, pelikula hori oinarri izanik, bere filmak zer ez duen izango pentsatuko du⁵³. Lehen aldiz, hor konturatuko da zeluloide gainean margotu daitekeela⁵⁴.

Horrela, hamar urte geroago, egiten dagoen guztia utziko du, eta pinturarekin esperimentatzen hasiko da, baina orain esperimentazio hori zinemaren bidez egingo du. 1958an zeluloide gainean margotu ahal dela ikusiko duenez, pinturaz eginiko pelikula bat egingo du. Pelikula hasi aurretik, egun horretan zineman, bere pelikula mutua izango dela eta irudiak bibrazioan mantenduko direla erabakiko du.



Sistiaga, J.A.

...*Ere erera baleibu izik subua aruaren...* edo *De la luna a Euskadi*, lehenengo bertsioa, 1968.

Film 35 mm, 8', soinurik ez.

Zeluloide gaineko pintura.

[5. Irudia]⁵⁵

⁵¹ BOUHOURS, J.M.: *Lorategi irudikatu bateko islak*, op.cit., 19 orr.

⁵² "Entrevista a José Antonio Sistiaga", op. cit.

⁵³ "Entrevista José Antonio Sistiaga (I) - ERE ERERA BALEIBU IZIK SUBUA ARUAREN", *Youtube*, 2007. <https://www.youtube.com/watch?v=rZaWzB6Cxig> (2018.04.14an kontsultatua).

⁵⁴ ASTIZ, I.: "Sistiagak egin du aurtengo Durangoko Azokako kartela", *Berria*, 2017. 1 orr.

⁵⁵ VICARIO, B. & MATEOS, J.M^a., op.cit.

Koloreek bizitza propioa dutenez, gauza asko transmititzen dutenez, eta koloreenganako errespetua izan behar dugunez, bere pelikulek ez dutela soinurik behar erabakiko du⁵⁶. Sistiagak Frantzian zegoela gai horren inguruan bere lagun baten hitzak barneratuak izango ditu, honek hurrengoa esan ziolako: «*No dejes que nadie le ponga música a tu película, esa es tu comunicación*»⁵⁷.

McLarenen pelikulan, aldi berean, efektu optikoen bidez irudiak gorantz eta berantz egingo dute. Hau da, Sistiagaren filmean, efektu optikoa egingo dute, baina irudiak finko geratuko dira, bibrazioaren bitartez. Zineasta errusiarrak, zeluloidearen lente guztietan bere margolana egingo du askotan. Sistiagak, ordea, zeluloidearen lente bakoitzean margotuko du. Bestalde, McLarenen pelikulak askotan figuratiboak dira, eta animazioa protagonista izango da beti⁵⁸.



Sistiaga, J.A.
...Ere erera baleibu izik subua aruaren... edo De la luna a Euskadi, lehenengo bertsioa, 1968.
 Film 35 mm, 8', soinurik ez.
 Zeluloide gaineko pintura.

Horrela, 1968an Sistiagak bere lehenengo film laburra egingo du. Estetikoki, McLarenen pelikula bati egingo dio erreferentzia⁵⁹. *De la luna a Euskadi* edo *...Ere erera baleibu izik subua aruaren...* artistaren lehenengo film laburra izango da; pelikulak zortzi minutu iraungo du, mutua izango da eta hogeita hamabost mm-koa izango da⁶⁰.

Urte horretan Sistiaga, Bilboko zine esperimentalaren Festibal Internazionalera joan zen, eta “Zilarrezko Txistu Premioa” irabazi zuen⁶¹. Hala ere, premioa irabaziko zuela enteratu zenean, Oteizari telefonoz deitu zion, eta saria hartu nahi ez zuela esango dio. Oteizak saria hartzea esango dio, nahiz eta bera premio horrekin desadostasunean egon⁶².

[6. Irudia] ⁶³

⁵⁶ MARÍN, M., op.cit., 4 orr.

⁵⁷ SISTIAGA, J. A., op.cit; 1. galdera.

⁵⁸ “Entrevista a José Antonio Sistiaga”, op.cit.

⁵⁹ “Entrevista Jose Antonio Sistiaga (I) - ERE ERERA BALEIBU IZIK SUBUA ARUAREN”, op.cit.

⁶⁰ BOUHOURS, J.M.: *Lorategi irudikatu bateko islak*, op.cit., 148 orr.

⁶¹ SISTIAGA, J.A. & AMESTOY, S., op.cit., 18 orr.

⁶² SISTIAGA, J.A., op.cit., 1. galdera.

⁶³ VICARIO, B. & MATEOS, J.M^a., op.cit.

Artista eta zineastak ...*Ere erera baleibu izik subua aruaren...* pelikularen lehenengo bertsioa dela adierazi du, eta geroago izenburua aldatuko dio⁶⁴. Film labur figuratibo horretan, Sistiagak Euskadiko kulturaren eskua sartzen zuten pertsonai publikoak ilargira bidaliko ditu, zehazki, suziri batean⁶⁵. Bere pentsamenduen artean, beti artean edo orokorrean kulturaren esku hartzen duten politikoenganako kritika dagoenez, berak pentsamendu hori plasmatzeko artea erabiliko du bitarteko gisa: «*La cultura no debe ser dirigida por la política, se puede hacer mucho solo con un poco de creatividad y un punto de apoyo*»⁶⁶.

Pintatuta egon arren, marrazki batez lagunduta zegoen: bidaiarako garraio moduan politikariek eliza baten dorre bat erabiliko dute suziri baten antzera. Espazioan desagertuko dira, eta bat-batean dolarraren ikurra, igitaia eta mailua (komunisten ikurra) agertuko dira. Elizaren dorrea bertan jarriko da, eta bihotz bat irudikatuko du, hiruak harreman sexualak izaten ari direla adieraziz. Bertatik atmosferako geruzara joango dira, baina zati horretan garraioarekin zailtasunak izango dituztenez (elizako dorrearekin), txakolin botila baten truke aldatuko dute. Euskadira iristean itsasoan lurreratuko dute eta itsasontzi batera igoko dira, geroago “Desde Santurce a Bilbao” kanta abestuz bertatik jaitziko dira. Elementu figuratibo bidez pertsonai publikoen panoramari kritika egingo dio, artearen bitartez adieraziz hori dela politikariei kultura inporta zaiena⁶⁷.

Bere lehendabiziko film labur honetan, hurrengo pelikulan gertatuko dena azalduko digu. Hemen jada, bibrazioa, koloreen nagusitasuna eta mugimendua adierazten du. Nahiz eta bere “kamerarik gabeko” lehenengo froga izan, sari bat irabazi zuen, baina festibal horretan onena iristeke zegoen.

Madriren, Juan Huarte Beaumont nafarra zegoenez, Sistiagak pelikula amaitu gabe eramango dio, eta honek erostea nahiko du⁶⁸. Huartek, 1963an *X Films* ekoiztetxea sortu zuen, eta euskal artista askoren mezenasa izan zen XX. mendean⁶⁹. Erosketari dagokionez, zinemagileak ezetza emango dio, bukatu gabe zegoelako.

Hala ere, Sistiagak eta berak eskuko tratu bat egin zuten; hainbestekoa zenez Sistiagaren zinemarenganako interesa, bere hurrengo pelikularako hileroko dirua emango dio Sistiagari, eta honek egunero hamabi ordu lan egingo du, pelikula lehenbailehen bukatzeko.

⁶⁴ Ibid.

⁶⁵ MATXINBARRENA, A.: ...*Ere erera baleibu izik subua aruaren...*: [filma: *sistiaga 1968/70*]. Donostia, Tabakalera (Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa), 2007. 6 orr.

⁶⁶ GIL, N.: “Sistiaga: La cultura no debe ser dirigida por la política, se puede hacer mucho solo con un poco de creatividad y un punto de apoyo”, *Nafarroako Unibertsitatea*, 2016. http://www.unav.edu/web/catedra-de-lengua-cultura-vasca/noticias/detalle-noticia/2016/10/28/sistiaga%3A-%E2%80%9C-la-cultura-no-debe-ser-dirigida-por-la-politica-se-puede-hacer-mucho-solo-con-un-poco-de-creatividad-y-un-punto-de-apoyo%E2%80%9D/-/asset_publisher/pXsp2NHohyO/content/2016-10-28-noticia-fyl-sistiaga/10174 (2018.04.14an kontsultatua).

⁶⁷ SISTIAGA, J. A., op.cit., 1. galdera.

⁶⁸ MARÍN, M., op.cit., 4 orr.

⁶⁹ VICARIO, B. & MATEOS, J. M^a., op.cit., 32-33 orr.

Bestalde, Sistiagak pelikula berea izango dela argi utziko du, eta ez du aldaketarik onartuko. Horren truke, Huartek irabazitako diru kantitatearen erdiarekin geratuko da⁷⁰.

Pelikula hau Juan Huarte eta Balerdiri esker egin zuen. Momentu horretan Balerdi bere *Homenaje a Tarzán* pelikula egiten ari zenez, soberako materiala zeukan. Horren ondorioz, lata birjin zeharrargiak emango dizkio⁷¹.

Horrela, bere Hondarribiko etxean pelikularekin hasiko da, hamabi orduz egunero lan egiten, soilik jogurtez elikatzen. Sistiagak pintatzerako orduan baraurik egingo du askotan, bere organismoak hobeto funtzionatzen duelako⁷². Politikoenganako amorrua edo mendeku horretatik bere pelikulari hasiera eman zion, baina bigarren bertsio hori egiten ari zela, bere pelikula beste identitate bat hartzen zihoala ohartu zen.

Bide hori askoz interesgarriagoa izango da berarentzat, eta pelikula berak bide horren jarraipena emango dio. Beraz, figuratiboak diren elementuak alde batera utziko ditu, eta guztizko abstrakzioa jorratuko du⁷³.

Lan egiteko erari dagokionez, Sistiagak beti kontatzen du berak ideia bat izan bezain pronto zeluloidera korrika joaten zela eta bertan aplikatzen zuela. Ez du aurretiko analisirik egingo, zuzenean edo bururatu bezain pronto egingo du. Horregatik, pelikula hein batean nahiko arritmikoa izango da. Oso zaila izango da pelikula honen analisia, pelikula *unicum* bat baita. Lan egiteko modu horrek, momentu batzuen hedadura gutxia eta beste batzuetan handia suposatuko du⁷⁴.

Parisen zegoenean, liburu asko irakurriko ditu, eta horien artean Henri Lefévren bat azpimarratuko du artistak, bere sortze-prozesuarekin zer ikusia daukana:



Sistiaga, J.A.
...Ere erera baleibu izik subua aruaren... pelikularen kartel ofiziala,
UNESCO.
[7. Irudia]⁷⁵

⁷⁰ MATXINBARRENA, A., op.cit., 20 orr.

⁷¹ “Entrevista José Antonio Sistiaga (I) - ERE ERERA BALEIBU IZIK SUBUA ARUAREN”, op.cit.

⁷² SISTIAGA, J.A., op.cit., 5. galdera.

⁷³ MATEOS, J.M^a.: “...Ere erera baleibu izik subua aruaren... (1968-70, la búsqueda de un camino creativo en Sistiaga”, *Hedatuz Euskomedia* , 2008, 417-423 orr. <http://hedatuz.euskomedia.org/7421/1/26417423.pdf> (2018.04.21ean kontsultatua).

⁷⁴ “Entrevista José Antonio Sistiaga (I) - ERE ERERA BALEIBU IZIK SUBUA ARUAREN”, op. cit.

⁷⁵ Donostiako Tabakalera Zentroa.

«Si unimos la acción a la reflexión sin que ninguna de ellas preceda a la otra, todos nuestros actos serán actos de creación (...) ese gesto que en principio surge sin idea y que luego se va desarrollando al mismo tiempo que se ejecuta»⁷⁶.

Lehen informalismoaren atalean aipatu dugun hausnarketa hori eta espresionismo abstraktuaren funtsa garrantzitsua argi ikusteaz aparte, Sistiaga literaturaz baliatu dela ikus dezakegu ere.

Aurretik aipaturiko guztia bere lehenengo pelikularen analisira eramán gaitu. Ordu eta laurdeneko pelikula baten aurrean gaude, zeinak hirurogeita hamabost milimetro bider hiru kilometroko luzera duen. Hogeita hamabost milimetro karratu duen zeluloidearen lente bakoitzak (fotograma bakoitzak) bere euskarria izango du⁷⁷.

Materialez ari bagara, pintzelak, ura, tinta zeharrargiak eta monetak erabiliko ditu⁷⁸. Materialak erabiltzerako orduan, bere lehentasuna ahalik eta azkarren lehortzea izango denez, baldintza horretara egokitzen diren erremintak erabiliko ditu. Berak dio tintak argiaren barneratzea oso ondo onartzen duela, eta aldi berean koloreen berezko propietateak eta tonuak kontserbatzen dituztela⁷⁹. Bestalde, azpimarratu beharra dago tintak egiteko edo tintekin nahasteko erabiltzen duen ura, hondartzako ura dela. Hau da, ura eta area batera doanez, Sistiaga horretaz aprobeztatuko da. Izan ere, hau zeluloide gainean lehortzen denean, estruktura erretikulatua erreproduzitzen du⁸⁰. Honek esan nahi du irudiek noizbehinka sare itxura hartuko dutela.

Pelikularen hasieran, pelikularen ekoiztetxea (*X Films*) eta “*La película pintada por J.A. Sistiaga*” hitzekin topo egingo dugu. Hitzen azpialdean, margolan bat ageri da, eta badirudi lehen aipaturiko estruktura erretikulatuaz egin dagoela. Segundoak pasa ahala, gorritz eta beltzez margoturiko sare horretara planoak hurbiltzen ari direla dirudi, oso mantso aldatuz (4-5 segundoen artean planoak aldatzen eta aurreratzen). Bat-batean, “00:01:02:00” minutu aldera, pelikularen hasiera emango da. Momentu horretatik amaierara arte, lehen aipaturiko erritmo hori, ez da geldituko (segundoko hogeita lau irudiko abiadura)⁸¹.

Hasieran, badirudi plano zuriaren gainean gama arrosa eta moreak nagusitasuna dutela. Euria litzatekeen bezala, mantxa antzekoak azkartasunez eta tamainaz aldatzen joango dira. Nahiz eta pelikula arritmikoa izan, fotograma bakoitzak aurrekoarekin eta ondorengoarekin duen erlazioa izugarrikoa da, jarraitua baitirudi. Hasieran, gure begi erretinak “boom” antzekoa sufrituko dute, eta ezinezkoa izango da detaile guztietan arreta jartzea. Izan ere, kliska egiten dugun bakoitzean, pelikularen irudiak galtzen ditugu.

⁷⁶ VICARIO, B. & MATEOS, J. M^a., op.cit., 154-155 orr.

⁷⁷ BOUHOURS, J. M.: *Lorategi irudikatu bateko islak*, op.cit., 57-58 orr.

⁷⁸ PÉCOR, P.: “A sus 84 años, el artista vasco José Antonio Sistiaga pinta una película en homenaje al sol”, www.telam.com, 1-3, 2016. 3 orr.

⁷⁹ “Entrevista José Antonio Sistiaga (II) - ERE ERERA BALEIBU IZIK SUBUA ARUAREN”, op.cit.

⁸⁰ BOUHOURS, J. M.: *Lorategi irudikatu bateko islak*, op.cit., 21 orr.

⁸¹ SISTIAGA, J. A. & AMESTOY, S., op.cit., 77 orr.

Horretaz aparte, pelikulak dituen bibrazioak eta mugimenduak baldintzatuko gaituzte. “Pintzel tanta” horiek tamainaz, kolorez, kokapenez... aldatuko dira. Lehen aipatu bezala, momentu batzuek hedadura handiago izango dute. Horren adibide garbia pelikularen hasiera daukagu, non kolore gama berdina (arrosa eta morea nagusi) denbora dezente iraungo duen. Hasiera batean, euskarriaren kolorea nahiko ikusiko da, baina segun eta pelikula aurrera doan, hondoa gero eta gutxiago ikusiko da.



Sistiaga, J.A.
 ...Ere erera baleibu izik subua aruaren...
 bigarren bertsioa, 1968-1970.
 Film 35 mm, 75', soinurik ez.
 Zeluloide gaineko pintura,
 pelikularen fotogramak.

Efektu guztiengatik, batzuetan “pintzel tantak” guregan hurbiltzen ari direnaren sententzioa edukiko dugu, “3D” pelikula bat izango balitz bezala. Laburbilduz, esan dezakegu gure sistema optikoarentzat joko baten antzekoa izango dela.

[8. eta 9. Irudiak]⁸²

Bat-batean, nahiz eta kolore gehiagorekin joan, gorriari nagusitasuna emango dio, eta odolaren pertzepzioa izango dugu. Geroago, kolore berdeak, horiak, urdinak... nagusitasuna hartzen joango dira, horrela, kolore bizi guztiak pelikulan agertuz. Pelikula manipulatzeko aukera izanez gero, zehaztasunez ikusiko dugu tanta batzuk besteen gainean egon daitezkeela. Bestalde, badirudi tanta batzuk zehaztasunez egin dituela eta beste batzuk *dripping* teknikarekin.



Era berean, Pollock-ek sortutako espresionismo abstraktuaren *dripping* teknika pelikula osoan zehar ikusiko dugu. Beraz, hein batean baliteke Pollock eta Sam Francisen eragin estilistikoa izatea. Hala ere, Sistiagari teknika horren inguruan galdetzean zer zen ez zekiela argi utziko du.


Sistiagak perspektiba edo angelu ezberdinetatik zeluloidera koloreak botako ditu, batzuetan distantzia motzago batetik eta bestetan luzeago batetik, baina Pollock-ek erabiltzen zuen teknika horretan pentsatu barik, sinpletasunez, barnetik jaiotzen zitzaiolako. Fotograma bakoitzak ondorengo aditzera ematen digu; kolorea, tonuak, bolumenak...⁸³.

⁸² VICARIO, B. & MATEOS, J. M^a., op.cit.

⁸³Ibid., 170 orr.

Egia esanda, gutxitan asmatuko ditugu ondorengo fotogramak; batik bat, ez dugulako denborarik ondorengoan pentsatzeko. Azkenean, ikusleok eramango dugu pelikularen erritmoa, kliskatzearen erritmoa alegia. Pelikula honetan, espazioa eta denboraren metafisika jorratuko ditu⁸⁴.

Autoreak dio pelikula hiru konposizioen inguruan eginga dagoela; lehenengo elementu sinpleak, gero geometrikoa, eta azkenik organikoa⁸⁵. ...*Ere erera*... pelikulari buruz hitz egiten duenean, haurdunaldi batekin konparatuko du; adieraziko du bere pelikularen hasiera estruktura sinplea dela (haurra bezala) eta pixkanaka izaki konplexu batean bihurtuko dela⁸⁶.




Zientziarenganako interesa adierazgarria izango da bai bere pelikuletan, baita bere margolanetan ere. Nahiz eta jakin faltsua zela, Artistak dio haurdunaldiaren ideia euste-puntu bezala erabili zuela; izan ere, pelikula amaitzerakoan ez zen haur bat bertatik aterako⁸⁷.

Sistiaga, J.A.
...Ere erera baleibu izik subua aruaren... bigarren bertsioa,
 1968-1970.
 Film 35 mm, 75', soinurik ez.
 Zeluloide gaineko pintura,
 pelikularen fotogramak.

Pixkanaka, egitura geometrikora iritsiko gara. Adibide bikainena “00:20:00:00” minutuan gertatzen dena izango litzateke. Egitura geometriko zuri bat (hondoarekin kontrastatuko duen kolorea) hondoaren gainean jarri duela dirudi.

[10. eta 11. Irudiak]⁸⁸



Gainera, bibrazio eta mugimenduaz baliaturik, fotogramak pasatzen diren heinean, mugitzen joango da alde batera, hegan egongo balitz bezala. Guztizko atentzioa borobil horretan jarriko dugu nahi gabe, hondoan koloreak, formak... aldatzen diren bitartean. Bibrazio honi esker, gure begien pertzepzioa dela medio, irudituko zaigu atzeko tantek edo kolore masek puxika antzeko forma geometriko hori kolpatuko dutela, eta horregatik mugitzen ari dela. Kasu honetan, lehen aipaturiko materialen artean txanpona erabili duela pentsa dezakegu.

⁸⁴ BOUHOURS, J. M.: *Lorategi irudikatu bateko islak*, op.cit., 9 orr.

⁸⁵ MARÍN, M., op.cit., 4 orr.

⁸⁶ “Entrevista José Antonio Sistiaga (II) - ERE ERERA BALEIBU IZIK SUBUA ARUAREN”, op.cit.

⁸⁷ SISTIAGA, J. A., op.cit., 5. galdera.

⁸⁸ VICARIO, B. & MATEOS, J. M^º., op.cit.



“00:21:15:00” minutu eta segundoan, desagertu dela dirudi, baina hegazti batekin elkarlotu dezakegun mantxa batean bihurtu da. Hegaztiaren mugimendua egiten duen “tanta” alde batera eta bestera joango da, eta hamazazpi segundo barru desagertu dela dirudi. Hala ere, bat-batean forma zuri asko egongo dira, zeinak mugitzen joango diren.

“00:21:52:00” minutu eta segundoan, zirkunferentzia antzekoaren egitura geometrikoa agertuko da. Jakin badakigunez astronomia eta natura bere gustuko bi kontzeptu direla, pentsa dezakegu eguzkia, ilargia edo izar baten irudikapen abstraktua izan daitekeela. Egitura geometriko hori, txikituz, handituz eta kolorez aldatzen joango da.

Sistiagak pintura eta denboraren arteko ikerketa egingo du film honetan. Aldi berean, ikusleen irudimenarekin jolastuko du. Margolaritzan denbora mantso doa, eta zineman, pertzepzioengatik, alderantzizko erronka ematen da. Bi kontzeptuen bateratzea lortuko du; hirurogeita hamabost minutuz begiratu beharreko margolan baten aurrean gaude⁸⁹.

Forma eta kolore ugarien presentziak, bibrazioa eta mugimenduarekin batera, pelikula guztiz kaotikoa bihur dezakete. Hala ere, Sistiagak aldaketa txikiak egiten dituzenez, kaos horren sentipena edo sentsazioa baretu du.

Jarraitzeko, esan beharra dago “00:41:00:00” minututik aurrera gutxi gorabehera, tesel irregularrak diruditen sare moduko fotogramak egingo dituela. Imajina dezakegu lehen aipaturiko arearen teknika erabili duela. Begien bitartez, beste zentzumen batera bideratuko gaituela dirudi; zehazki, ukimenaren zentzumenera. Forma koloreen bitartez lortuko du, eta tamainaz eta kolorez aldatuz joango dira. Pertsonalki, zelulen azalarekin antzekotasunak ikusi ditut. Hein batean, logikoa izan daiteke, artistak zientziarenganako duen miresmen horrengatik.



Sistiaga, J.A.
...Ere erera baleibu izik subua aruaren... bigarren bertsioa,
1968-1970.
Film 35 mm, 75', soinurik ez.
Zeluloide gaineko pintura,
pelikularen fotogramak.

[12. eta 13. Irudiak]⁹⁰

⁸⁹ BOUHOURS, J. M.: *Lorategi irudikatu bateko islak*, op.cit., 45 orr.

⁹⁰ VICARIO, B. & MATEOS, J. M^a., op.cit.

Argi-ilunen nagusitasuna aipatu beharreko beste ezaugarri nagusi bat da. Kontrasteekin, batzuetan bortitzagoak bestetan baino, bibrazioa eta mugimenduaren sentsazioa handitzen duela dirudi. Zelulak diruditen zeluloidetan adibide garbiak ditugu. Horretan ere, artistak aukeratutako materialak zer ikusia izango du.

Pelikularen amaiera hurbiltzean dagoenean, kolore gorria eta beltza nagusituko dira. Pelikularen hasierarekin elkarlotzen badugu, koloreak oso parekoak direnez, baliteke Sistiagak modu inkontziente batean horren seinalea agerian uztea. Hala ere, pelikularen amaierari buruz hitz egiten duenean, nolakoa izan zen azalduko du.

Pariseko etapa horretan (1955-1961) Ibizara bizitzera joan zenez denboraldi batez, 1970an bertara bueltatu zen. Utzi zioten tailer batean pelikulan lan egiten zegoela, eguzkia bertara sartu zen, eta argi naturalak zeluloidearen forma desegin zuen. Badirudi momentu horretan, film luzearen finalarekin eman zuela⁹¹. Laburbilduz, esan dezakegu kolore, argi-ilun, bibrazioa, mugimendua, azkartasuna eta kontrasteen bitartez pintura zinetikoa eta abstraktua lortu duela⁹², efektu optiko ikaragarriak lortuz.

Bestalde, pelikularen soinuari buruz hitz egingo dugu. Lehen aipatu bezala, mutua izango zela erabaki zuen arren, azkenean xuxurla baten antzekoa hautematen dugu. Gainera, pelikula aurrera jarraitzen duen bitartean, zurrumuru hori aurrera doa, baina ia hautemanezina da⁹³.

Azkenik, ...*Ere erera baleibu izik subua aruaren...* pelikularen izenburuaz hitz egin beharra dago. Juan Huarteren *X Films* ekoiztetxetik, Madriletik zehazki, Sistiagarekin kontaktuan jarri ziren, adieraziz bere pelikulak izenburua izan behar zuela. Sistiagak bere pelikulari ez zion izena jarri nahi, baina zinemaren munduan sartzeko derrigorrezkoa zela esan zioten. Oso haserre, telefono baten bila joan zen, eta bere lagun oso ona izan zen Balerdiri deitu zion; honek, euskarazko, ingelesezko eta gaztelerazko hitz edo soinuak gogorarazten zituzten hitzak asmatzen zituen.

Horrela, Balerdik hitz horiek esan zizkion Sistiagari, eta artistak bere pelikularen izenburutzat hartu zituen. Ekoiztetxearen bulegora joan zen, eta izenburu horren berri eman zuen⁹⁴. Aipatu beharra dago artistak diola betebeharraren erruduna zentsura izan zela⁹⁵. Aldi berean, Madrilen bertan izenburua esanda, gaztelerako itzulpena eskatzen zioten, ez baitzuten ulertzen sasi hitzak zirela. Sistiagak uste du izenburuan ETA-ren mezu subliminalak zeudela pentsatzen zutela. Hala ere, azkenean izen horrekin konformatu ziren, eta Sistiaga berak ez daki zer gertatu zen itzulpenaren asunto horrekin; *X Films* ekoiztetxeak itzulpen bat asmatu zuela imajinatzen du⁹⁶.

⁹¹ “Entrevista José Antonio Sistiaga (II) - ERE ERERA BALEIBU IZIK SUBUA ARUAREN”, op.cit.

⁹² AUTORE EZEZAGUNA: “Sistiaga presenta hoy en Pamplona la película que pintó fotograma a fotograma”, *Noticias de Gipuzkoa*, 67, 2006.

⁹³ PÉCORA, P., op.cit., 5 orr.

⁹⁴ FERNÁNDEZ, H.: “Es lógico que a un pintor le interese el cine, pero hoy en día han llevado el cine a la nada”, *Noticias de Gipuzkoa*, 68-69, 2016. 88 orr.

⁹⁵ AUTORE EZEZAGUNA: “El Guggenheim proyecta filmes pintados de Sistiaga”, *Noticias de Gipuzkoa*, 65, 2006.

⁹⁶ FERNÁNDEZ, H., op.cit., 88 orr.

6. ONDORIOAK

Sistiagaren ibilbide artistikoan derrigorrezko kontua bere familia izan da, bere formakuntzan oso garrantzitsuak izan baitira. Horren haritik, artista autodidakta bihurtuko da eta bizipen ugari izango ditu, Paris adibide izango delarik. Bertan ezaguturiko pertsonak eta artistak adibidez, eraginak izango dituzte bai bere obran, bai bere zineman.

Hala ere, berak egingo duen artea barrutik jaioko da, eta ezin zaio mugimendu bakar batekin erlazionatu. Argi dago bere obran lan osoan zehar aipaturiko korrante ezberdinen ezaugarriak daudela, baina hein batean inkontzienteki bereganatuko ditu, eta gero bere obran horien presentziak pertsonalki praktikan jarriko ditu: keinu-bidezko pintura, kolore biziak eta kontrastez beteriko margolanak adibidez. Kolore bizien presentziari buruz galdetzerakoan, artistak honakoa esan zuen: «*Uso colores vivos porque son los esenciales, es algo que hago de un modo natural*»⁹⁷. Ikusten dugun bezala, bere sortze-prozesua askatasun osoz egingo du, ez baita arte-azalpen bat, baizik eta arte-ekintza bat. Mezuez nekatuta egongo da (horregatik bere pelikula mutua izango da), berak ez baitu bere artearekin ezer ez transmititu nahi, berarentzako margotzen duelako. Horren ondorioz, ez du aurretiko ideien analisisia egingo.

Idea horiek bere zineman aplikatuko ditu, ez zaio inporta bere zinemarekin publikoa aspertzea. Gainera, pelikula honek ez duenez ulermena eskatzen, oso zaila izango da filma deskribatzea. Bizitza propioa hartuko du, hutsetik sortzen diren formak agertuz, eta gero hauek, bizi ondoren desagertuz. Azaldu ezin den gogoeta ikaragarria bideratuko du, eta agertzen diren irudikapenak gure subkontzientean ditugun edozein ideiarekin elkarlotuko ditugu: odola, euria, izarrak, puxikak eta zelulak adibidez. Zientziarenganako miresmena bere obra gehienetan nagusituko da, horrenganako interesa ikaragarria baita: «*Es de dónde venimos, ¿cómo no me voy a interesar?*»⁹⁸.

Zinema eta pinturaren elkarlotze honekin, hau da, artearen bi diziplina elkar batzean, publikoaren pertzepzioekin joko du, arrazionalismoa desagertuko delarik. Guretzako ezezaguna denaz gozatu beharko dugu pintura eta denboraren arteko ikerketa honekin. Musikarik gabeko dantza bat sortu du, eta margolaritzan mantso doana zineman azkar doanarekin batu du. Bi diziplina batzearen inguruan galdetu nionean, argi utzi zidan arteak ikaskuntza prozesu azkarrenak zirela, eta bi elkarlotzen direnean aurrera egitea askoz errazagoa eta azkarragoa zela.

Beraz, Sistiagak argi utziko du artea beraren onurarentzako egiten duela, eta gauzak barrutik ateratzen zaizkiola, mugimendu, korronteen eta beste artisten artelanetan pentsatu barik: «*porque tú tienes que tener tus propias iniciativas*»⁹⁹.

⁹⁷SISTIAGA, J. A., op.cit., 8. galdera.

⁹⁸Ibid., 4. galdera.

⁹⁹Ibid., 3. galdera.

7. BIBLIOGRAFIA OROKORRA

1. BIBLIOGRAFIA

- BOUHOURS, J. M.: *José Antonio Sistiaga: Lorategi irudikatu bateko islak*. Donostia, Kulturunea, 2011.
- BOUHOURS, J. M.: *Sistiaga keinu bidezko pinturatik mugimenduaren artera*. Alzuza, Jorge Oteiza Fundazio Museoa (Nafarroako Gobernua), 2015.
- FERNÁNDEZ, J.: *Euskal Zinema: Zinemagileen hiru belaunaldi*. Donostia, Euskadiko Filmategia Fundazioa, 2015.
- GUASCH, A. M^a: *Arte e ideología en el País Vasco: 1940-1980*. Madril, Akal/Arte y Estética, 1985.
- MATXINBARRENA, A.: *...Ere erera baleibu izik subua aruaren...: [filma: sistiaga 1968/70]*. Donostia, Tabakalera (Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa), 2007.
- SISTIAGA, J. A. & AMESTOY, S.: *Sistiaga: [Pintura, dibujos eróticos, films: 1958-1996]*. Madril, May Moré Arte Galeria, 1999.
- VICARIO, B. & MATEOS, J. M^a: *Sistiaga, el trazo vibrante*. Madril, Animadrid (Pozuelo de Alarcon udaletxea), 2007.

2. HEMEROGRAFIA

- AGUIRRE, J.: “Los Ocho Nombres Que Cambiaron El Arte Vasco”, *Gara*, 6-8, 2016ko apirilaren 28a.
- ASTIZ, I.: “Sistiagak egin du aurtengo Durangoko Azokako kartela”, *Berria*, 2017ko urriaren 17an.
- AUTORE EZEZAGUNA: “Sistiaga presenta hoy en Pamplona la película que pintó fotograma a fotograma”, *Noticias de Gipuzkoa*, 67, 2006ko otsailaren 21a.
- AUTORE EZEZAGUNA: “El Guggenheim proyecta filmes pintados de Sistiaga”, *Noticias de Gipuzkoa*, 65, 2006ko urriaren 18an.
- FERNÁNDEZ, H.: “Es lógico que a un pintor le interese el cine, pero hoy en día han llevado el cine a la nada”, *Noticias de Gipuzkoa*, 68-69, 2018ko martxoaren 9an.
- KESKA, M.: “Las interacciones entre cine y corrientes artísticas contemporáneas”, *Artigrama*, 20, 2005, 547-562 orr. <http://www.unizar.es/artigrama/pdf/20/3varia/19.pdf> (2018.05.09an kontsultatua).
- LANDABURU, A.: “Pionero del cine hecho pintura: [El artista vasco José Antonio Sistiaga ha convertido el celuloide en un lienzo para la experimentación], *El País*, 3, 2009ko urtarrilaren 9an.

- MARÍN, M.: “Los políticos creen saber más que los artistas y deciden sin preguntar”, *El País*, 4, 2006ko otsailaren 17an.
- PÉCORA, P.: “A sus 84 años, el artista vasco José Antonio Sistiaga pinta una película en homenaje al sol”, www.telam.com, 1-3, 2016ko azaroaren 18a. 5 orr.

3. TESIAK

- LINAZA, G.: *Pensamiento romántico naturalista y experiencia procesual en el expresionismo abstracto. Influencia en el informalismo vasco*. Bilbo, UPV/EHU, Arte Ederren Fakultatea, 2008.

4. WEBGRAFIAK

- AGUIRRE, J.: “José Antonio Sistiaga: “«La pintura no ha sido un modo de vida para mí, sino la vida misma»”, *Naiz*, 2018. <https://www.naiz.eus/es/actualidad/noticia/20161005/la-pintura-no-ha-sido-un-modo-de-vida-para-mi-sino-la-vida-misma> (2018.04.14an kontsultatua).
- “Entrevista a José Antonio Sistiaga”, *Vimeo*, 2010. <https://vimeo.com/35153766> (2018.04-14an kontsultatua).
- “Entrevista José Antonio Sistiaga (I) - ERE ERERA BALEIBU IZIK SUBUA ARUAREN”, *Youtube*, 2007. <https://www.youtube.com/watch?v=rZaWzB6Cxig> (2018.04.14an kontsultatua).
- “Entrevista Jose Antonio Sistiaga (II) - ERE ERERA BALEIBU IZIK SUBUA ARUAREN”, *Youtube*, 2007. https://www.youtube.com/watch?v=t3WR5i_OHho (2018.04.14an kontsultatua).
- “Exposición Sistiaga. De la pintura gestual al arte del movimiento”. *Jorge Oteiza Fundazio Museoa*, 2015. <http://www.museooteiza.org/2015/06/exposicion-sistiaga-de-la-pintura-gestual-al-arte-del-movimiento/> (2018.04.14an kontsultatua).
- GIL, N.: “Sistiaga: La cultura no debe ser dirigida por la política, se puede hacer mucho solo con un poco de creatividad y un punto de apoyo”, *Nafarroako Unibertsitatea*, 2016. http://www.unav.edu/web/catedra-de-lengua-cultural-vasca/noticias/detalle-noticia/2016/10/28/sistiaga%3A-%E2%80%99Cla-cultural-no-debe-ser-dirigida-por-la-politica-se-puede-hacer-mucho-solo-con-un-poco-de-creatividad-y-un-punto-de-apoyo%E2%80%99D/-/asset_publisher/pXsp2NHohyO/content/2016-10-28-noticia-fyl-sistiaga/10174 (2018.04.14an kontsultatua).
- MARTÍNEZ-SALANOVA, E.: “Norman McLaren. La experimentación en el cine de animación”. *Cine y educación, Portal de la educomunicación*. http://educomunicacion.es/cineyeducacion/figuras_mcLaren.htm (2018.05.09an kontsultatua).

- MATEOS, J.M^a.: "...Ere erera baleibu izik subua aruaren... (1968-70, la búsqueda de un camino creativo en Sistiaga", *Hedatuz Euskomedia* , 2008, 417-423 orr. <http://hedatuz.euskomedia.org/7421/1/26417423.pdf> (2018.04.21ean kontsultatua).
- SALA, T.: "El arte es más que mi modo de vida: es mi vida", *Euskonews & Media*, 2005. http://www.euskonews.com/0292zbk/elkar_es.html (2018.04.14an kontsultatua).

ERANSKINA

- Sistiaga, J.A. *Artistari egindako elkarrizketa*. 2018ko maiatzaren 11an.

1. **Se le relaciona siempre con varios movimientos: expresionismo abstracto americano, abstracción lírica francesa, informalismo vasco... ¿Pero usted, qué se considera?**

(Risas). Para poder contestarle a todas las preguntas hay que hacerlo bien. Empecemos por el principio.

Me acuerdo que cuando tenía cuatro o cinco años mi madre y mi padre, que les gustaba mucho la música, me ponían siempre a Sarasate. Yo quería ser como él, quería tocar el violín.



Un día, como todos, fui a casa de la familia Linazasoro, porque mi madre iba con su amiga y me llevaba. En esa casa, en el cuarto de estar, había una copia de «La Rendición de Breda de Velázquez», que la había pintado el abuelo. Desde el primer día en que la vi, siempre quería volver a verla, porque esa obra me fascinaba. Siempre he sido muy observador, desde pequeño. Un día, me regalaron la caja de acuarelas del abuelo (aunque ya estaban muy secas). Y desde ese instante empecé a pintar.

A los 14 años hice mi primera exposición en casa de mi amigo Basterreche. Su madre, que se rodeaba de lo mejor de la época, hizo que personas importantes vieses mis copias, y les gustó mucho.

Más tarde, me fui a París, a casa de una amiga de mi madre. Al principio, cuando toqué su puerta no me reconoció (risas), pero luego ya sí. Me dejó instalarme en el sótano, y gracias a ella comencé los estudios en la Escuela de Bellas Artes de allí.

Pero yo me di cuenta que eso no me servía para nada. Ese profesor no nos dijo ni que en ese momento había una exposición de Kandinsky.

Conocí a Manuel Duque, y él me enseñó muchas cosas. Además, él sabía mejor el francés que yo.

Un día fuimos a una galería y vimos seis exposiciones. De esas seis, solo tres me parecieron verdaderas. Y claro, yo me preguntaba: ¿Por qué? Recuerdo una en la que todos los cuadros se titulaban «Desnudo», pero yo no veía ningún desnudo en ellas.

Ese mismo día, por la noche, fui a la filmoteca francesa y detrás de un árbol pinté sombras de las personas que salían de allí. Ese fue el inicio de mi abstracción en 1958.

Ese mismo año, me fui con Duque al cine de Montparnasse. Yo fui a ver una película, y antes de esa película ponían una de McLaren. Cuando la vi, me dije a mí mismo: jolín, pero a mí esto me interesa muchísimo. Y diez años después empecé a hacer mi película. Yo me di cuenta de que no quería que tuviese mi película, en la de McLaren la música de jazz llevaba el ritmo de la película. Yo pensé que mi película iba a ser muda por respeto al color. Recuerdo que un día, un señor (no recuerdo su nombre) me vino y me dijo lo siguiente: «No dejes que nadie le ponga música a tu película, esa es tu comunicación».

Mi primera película la llamé «...Ere erera baleibu izik subua aruaren...» al principio, luego le cambié el nombre a «De la luna a Euskadi». La película no solo estaba pintada, iba acompañada de un dibujo. Los políticos del País Vasco que se ocupaban de la cultura de aquí viajaban de la luna a Euskadi. Los políticos usan una torre de una iglesia en modo de cohete. Por un momento desaparecerán en el espacio, y de repente aparecían el símbolo del dólar, la hoz y el martillo (símbolos del comunismo). Aparece un corazón dando a entender que hacen el amor.

De ahí, irán a la atmosfera, pero será muy difícil pasar por ahí, y tendrán que cambiar de transporte. Se montarán en una botella de chacolí y vendrán a Euskadi. Cuando llegan, aterrizan en el mar y se montan en un barco. Cuando bajan del barco estarán cantando «Desde Santurce a Bilbao». Ahí demostrarán lo que les importa la cultura, borrachos.

Me acuerdo que gané el premio del Chistu de Plata en el festival y cuando me dijeron que lo iba a ganar llamé a Oteiza para decirle que yo no quería coger el premio. El me dijo que lo cogiera, y así lo hice.

2. ¿Sería adecuado considerarle un artista informalista?

Yo no me considero nada. Yo hago lo que me sale de dentro.

3. ¿Cuáles son los objetivos estéticos que quiso lograr con este trabajo?

Yo no quiero lograr nada. Yo pinto para mí. El arte es una compensación para mi propio beneficio. Todo el mundo tiene que tener la total libertad de creación.

4. ¿Considera que el arte tiene que ser interdisciplinario, ya que usted ha juntado pintura y cine? ¿Valora más la pintura o el cine? ¿O están para usted al mismo nivel?

Para mí todo es fundamental. Yo me intereso por todo. De ahí mi interés por la ciencia. Es de dónde venimos, ¿cómo no me voy a interesar? Un día vi una fotografía de un grano de sal, y la fotografía medía un metro cuadrado. Tenía una estructura geométrica excepcional. ¿Cómo no te vas a fijar en eso?

Yo les digo siempre a mis hijos que apunten a música a mis nietos, porque la música también es vida.

5. ¿Qué obstáculos técnicos tuvo a la hora de hacer...Ere erera...?

Por el trato que hice con Huarte no tuve ningún problema económico. Solo me hacía falta tiempo, porque yo no sabía cuánto me iba a costar hacer la película, hasta que un día entró el sol en el taller, y di con el final. Trabajé durante dos años doce horas al día alimentándome de yogures, aunque a veces ni comía. Si se quiere pintar creo que es mejor en ayunas (por lo menos eso me pasa a mí), el organismo funciona mejor.

Me auto engañé pensando que era un proceso biológico, como un embarazo. Como una mujer le da vida a un niño, mi película sería igual. Usé esa idea de punto de apoyo, aunque yo ya sabía que al final de la película no iba a salir un niño de ella (risas). Yo tenía una idea de mi cine, a mi me daba igual aburrir al público o no aburrirle.

6. A parte de McLaren, ¿qué cree que ha influido en su cine?

Nada más. Pero algo que también me cautivó fue la biografía que leí del bailarín Nijinsky, la que escribió su mujer.

7. ¿Qué ha supuesto para usted...Ere erera...?

No lo sé, yo solo pintaba porque yo quería. El arte ha sido mi vida.

8. ¿Por qué le interesan más los colores vivos?

Porque son los esenciales, no sé, por eso son vivos. Es algo natural.

9. ¿Por qué la evolución de lo figurativo a lo abstracto?

No pienso en eso, simplemente hago lo que me apetece. No todo lo que hago es abstracto, mira mi serie de *desnudos*.

10. ¿Por qué el tamaño de sus obras de repente creció?

Porque encontré un sitio donde poder hacerlas.

